

## IRURA. HERRI-OSTATUA

### 4. HERRI BATZARRA

**Eguna:** 2022/04/04

**Ordua:** 17:00-19:00

**Lekua:** Irurako eskola zaharreko gela borobila

**Bilera modua:** Aurrez aurre

#### Parte hartzaileak:

- 9 lagun, 7 emakume eta 2 gizon

#### 1. Sarrera

Elhuyarreko Idurre Zugazagastik eta Maite Unzaluk, ongi etorri eman eta saioaren helburua eta planteamendua azaldu ditugu:

**Helburua:** Irurako herri-ostatuaren bizikidetzarako irizpideak adostea

#### Gai-zerrenda:

- Sarrera
- Irurako herri-ostatuaren inguruko partaidetza-prozesua kokatzea
- Irurako herri-ostatuaren bizikidetzarako irizpideak adostea
- Balorazioa eta itxiera



Aurkezpenaren ondoren, eta herri-ostatuaren bizikidetzarako irizpideekin lanean hasi aurretik, girotzeko ariketa bat egin dugu.

- Hasteko eta behin, hiru talde egin ditugu eta horretarako, urtebetetze egunaren arabera kokatzeko esan diegu.

- Talde txikitik banatu gara eta hurrengo erronka proposatu diegu, bost minutuetan Irurako herri-ostatura eraikitzea. Honela, talde bakoitzak kubo bat egin du, banatutako materialarekin (kuboa folioan, guraizeak, zela eta margoak). Kuboa bost minututan sortu dute. Behin kuboa eginda talde bakoitzak Irurako herri-ostatuaren lehiaketara zergatik aurkeztu beharko ginatekeen kontatu digu.
- Zergatik aurkeztu Irurako herri-ostatuaren proiektura? Zein da Irurako herri-ostatuaren balio-erantsia?
  - Ostatuko eskeletoa daukagu. Hemen euskara oso garrantzitsua da. Irura txikia da eta ostatu hau herriko bilgune izan behar da. Gustura sentituko zarete. Jende gehiena biltzen duen tokia da, Leku alaia eta aukera gastronomiko eta kulturak anitzekin. Bezeroak etortzeko desiratzen daude.
  - Ostatua fisikoki eginda dago, baiian zuek ezinbestekoak zarete. Hutsik dagoen kuboa zuek beteko duzue. Balioak bermatuta daude ta trukean proiektu polita eskaintzen dizuegu.
  - Eskeletoa hutsean dago, momentu onean hartuko duzue. Elkarlanean denon artean ostatu ideala sortuko dugu.

## 2. Irurako herri-ostatura

Irurako herri-ostatura zein balioen gainean eraikiko den eta zein zerbitzu eskaintzea adostu genuen gogoratu dugu.



Ondoren, taldetan, Irurako herri-ostatuaren bizikidetzarako irizpideak landu ditugu, lau aldagai kontuan hartuta. Bizikidetzaren bakoitzaren baitako lanketa post-it batean jaso dugu. Laguntzeko zenbait galdera proposatu ditugu:

## BIZIKIDETZARAKO IRIZPIDEAK

### Formakuntza

- Zein izan behar du Irurako herri-ostatuaren kudeaketa eramango duen pertsonaren edo lantaldearen profila? Zein formakuntza izan beharko lukete?
- Herri-ostatuko langileen garapenerako, zein formakuntza eskaini beharko litzaieke?
- ...

### Harremanak eta parte hartzea

- Zein harreman izan behar du herri-ostatuko kudeatzaileak Irurako Udalarekin? Eragileekin?
- Irurako Udalak eta herriko eragileek herri-ostatuan kultur jarduera bat antolatzeko, zein izan behar du prozedurak? Nola hartuko da erabakia? Nork erabakiko du?
- Herri-ostatuaren erabilera irekia izango al da? Nork erabili dezake? Zertarako?
- Herri-ostatuaren erabilera zehazten duen dekalogo bat sortu behar da?
- ...

### Komunikazioa eta hizkuntza

- Herri-ostatuak, zer komunikatu behar du?
- Herri-ostatuak zein komunikazio-bide izan behar ditu? Eta zein komunikazio euskarri erabili behar ditu?
- Komunikazioak zein iruditeria edo marka erabili behar du?
- Komunikazioa zein hizkuntzatan egin beharko da?
- Herri-ostatuko errotulazioa, euskarriak (menua)... zein hizkuntzatan egon beharko dira?
- ...

### Egutegia-ordutegia

- Zein izan beharko litzateke herri-ostatuaren ordutegia?
- Eta urteko egutegia?
- Nola bermatuko da herri-ostatuko kudeatzaile eta langileen ongizatea eta deskantsua?
- ...

## Profila eta formakuntza

- Sukaldaritza ikasketak dituen.
- Euskalduna
- Dinamikoa.
- Formakuntza dinamizatzen.
- Sukaldaritza alternatiboak (begetarianoa...)
- Betetzen ez dituen alderdiak formatu (euskara adibidez...)
- Sare-sozialak (formatu)
- Marketina
- Informazio gunea bada, herria ezagutu

- Esperientzia lehenetsiko genuke baina pertsona horrek gogoia eta fundamentua izatea garrantzitsua iruditzen zaigu.
- Oinarrizkoa formakuntzak edukitzea positiboki baloratuko genuke baina eduki ezean udalak hauek egiteko erraztasunak eskaini beharko lituzke. (Alergenoak, jaki manipulatuak...)

- Ostalaritzan eskarmentua eta ikasketak.
- Gaitasun soziala.
- Kulturarekiko interesa eta grina.
- Beharretara moldatzeko prestutasuna
- Herriak aukeratutako proiektuari erantzungo diona.
- Iniziatibaduna.
- Irura ezagutzea.
- Euskaraz jakitea.
- Guk zer eskainiko diogu?:
  - Negozioa bideragarri izateko ikasketa formazioa.
  - Gertutasuna.

## Harremanak eta elkarlana

- Zuzeneko harremana, aktiboa.
- Zuzeneko harremana.
- Erabateko komunikazio kultur mahaiarekin, hiru hilabeteko egutegia finkatzea kultur-mahaiak aurreikusteko.
- Erabat itxita ez. Espazioaren zati bat behar bada ixteko aukera edukitzea eragileentzat, beti ere planifikazioarekin.
- Dekalogoak behar da

- Hiru norabideetako harremana behar luke eta horretarako "hilean behin" bilerak egin.
- Erabakia kultur mahaiak hartu beharko du. Beti ere tabernariak nahi duena proposatu diezaioke. K.M
- Ekitaldien balorazioak egitea komeniko litzateke.
- Kultur mahaira irekia.

- Udalarekin, iraunkorra, elkarlanerako balioko duena.
- Kultur Mahaian parte hartzea, bertan erabakiko da, adostua izan dadin.
- Edozein herritarrek erabili ahal izango du. Proposamenak K.Mra eramanda.
- Araubide batzuk zehaztuko dira:
  - Hizkuntza eta berdintasun irizpideak bermatu.
  - KMK onartua.
  - Udalak ostalaritzarako araututakoak bete beharko ditu (hondakinak, ordutegiak...)

## Komunikazioa eta hizkuntza irizpidea

- Herri-ostatuko eskaintza komunikatu behar da (gastronomikoa, egingo diren ekitaldiak, bestelako zerbitzuak..)
- Fisikoa bertan )(tabloia, kartak, sare-sozialak...)
- Berea propioa sortu.
- Euskaraz
- Euskaraz.

- Herriko eta bailarako harrera puntua.
- Tabernan bertan karta. Sare-sozialak (Ig, Fb) Irurako app-aren barruan esteka
- Irekia
- Komunikazio eta errotulazio euskarriak euskara ulerkor hutsean baina, QR edo bilingue bertsio bat.

- Ostatuko zerbitzuen berri programazioa, izaera publikoa eta denon zerbitzura dagoela.
- Sare-sozialak, APP, Udalaren bideak (webgune, pantaila...), KMK dituen kanal berak erabiltzea, tokiko Komunikabideak...
- Marka eta logoa, bai
- Euskaraz.
- Udaleko hizkuntza-irizpideen arabera erabilera-
- Irudia eta marka herritararen aukeratutakoa izango dena.

## Egutegia eta ordutegia

- Neguko eta udako ordutegia bereiziko dira.
- Astean behin (deskantsua: astelehena, asteartea edo asteazkena).
  - 9:00-21:00 (Neguan astean zehar)
  - 10:00-01:00 (Neguan asteburuan)
  - 9:00-22:00/23:00 (udan astean zehar)
  - 10:00-01:00 (Udan asteburuetan)
- Abuztuan itxi (saiatu beste tabernek ez koinziditzen)
- Aukera ematea aste bete bat nahi dutenean iztea (festetaik kanpora)

- Astean deskantsu egun bat eduki behar dute, ostirala, larunbata eta igandea izan ezik.
- Ixteko aukera: uztaila erditik, iraila erdira.
- Ordutegia:
  - As-Os: 10:00-22:00
  - Os-Ig: 10:00-01:00

- Ohiko ordutegia, legeak markatzen duena.
- Data berezietan, ordutegia malgutzeko aukera, betiere udalarekin adostuta.
- Abuztua izan ezik, irekita.
- Deskantsurako, jaiegun bat, asteburua eta ostirala izan ezik. Egun hori berdina izango da, herrian zerbait berezia izanez gero, aldatzeko prestutasunez.

### 3. Itxiera

Herri-batzarra baloratzeko 0tik 10era, lerroan kokatzeko eskatu diegu. Puntuazioa emateaz gain, ardatz bertikalean (gorputzarekin) nola sentitu diren adierazteko eskatu diegu.

Gehiengoa 7 eta 8 puntuko baloreen artean kokatu da eta gorputzaldiari dagokionez, irribarrea aipatu dute.